

HEZKIDETZA PLANA

2013-14

2014-15

2015-16

Vda. de Epalza

AURKIBIDEA:

1.Sarrera

2. Hezkidetzaren diagnostikoa ikastetxean.

2.1. Finkatutako ekintzak.

2.2. Sendotasunak.

2.3. Hobetu beharreko arloak.

3.Hezkidetzaren Planaren Helburuak.

4.Helburuak lortzeko proposatutako edukiak eta ekintzak.

5. Denboralizazioa.

6. Ebaluazioa eta hobekuntzarako proposamenak.

1. Sarrera

Gure gizarteak, nahiz eta genero berdintasunean zalantzarik gabeko aurrerapenak egin, eta itxura egokiko moldeen aldamenean, bere funtsezko pentsamenduan eta jarreretan, gizonezko genero nagusitasunarekin indarrean jarraitzen laguntzen eta mantentzen du. Eskolak desoreka horri erantzuna eman behar dio eta gogotsu lan egin behar du pentsamendu aldaketa eraginkorra izan dadin.

Eskolan aspaldidanik kontzienteak izan garenez, badaramatzagu urte batzuk hezkidetza eta genero berdintasuna sistematikoki lantzen. Prestatutako ekintzak, normalean, maila guztietara moldatu ahal dira.

Genero-berdintasuna, desberdintasuna kontuan hartuta, aldaketarako lehen urratsa da. Dena den, hara heltzeko, garrantzia gutxiago ez duten beste pauso batzuk eman behar ditugu. Eskolan, nesken boterearen lorpenerako bidea landu nahi dugu, haiek aldaketaren protagonistak senti ditzaten oinarrizkoa ikusten dugulako. Honekin batera, berdinen arteko indarkeriarekin, eta mutilengandik neskenganako bortizkeriarekin, edozein eratan, fisikoa zein hitzezkoa "Tolerantzia 0" aldarrikatu nahi dugu. Hitzak ere bai, bortizkeria eta genero indarkeriaren sortzaileak direla azpimarratu nahi dugu.

Halaber, gure eskolako neskek bizitzaren esparru guztietan nabariak izaten ikas dezaten ahaleginduko gara. Horretaz aparte, baliagarriak direnen eta besteen aurrean baliagarriak egin behar dutenen kontzientzia hartu behar dute.

Berdintasuna, hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko borondate sakona badaukagu. Dena den, norabide honetan lan egiten duela urte batzuk hasi ginen eta gaur egun esperientzia badaukagu zentzu horretan aritzen.

Beraz, Plan honetako abiapuntua, gure esperientziaren sintesia eta gure benetako motibazioa da. Ez gara zerotik abiatzen, heziketa-lana bideratuta dago. Hemendik aurrera hasita dagoen lanarekin sakontzen jarraituko dugu.

2. Hezkidetzaren diagnostikoa ikastetxean

Datorren ikasturteetako Hezkidetzari buruzko planaren egitaraua antolatu baino lehen, gai honetan gure ikastetxearen diagnostikoa egin dugu.

Hiru ikuspuntu desberdinetatik ekingo diogu, nahiz eta osotasun osoan ez egin jantokiko esparrua ikertu gabe uzten baitugu (saiatuko gara ahalik eta lasterren egiten)

Hiru esparruak, honako hauek dira: Klaustroa, 3. Zikloko ikasleak eta familiak. Jakin nahi dugu estamentu bakoitzean zer pentsatzen duten, zer dakiten gaiari buruz eta nola bizi izaten ari diren orain arte egindako lana.

Klaustroaren gehiengoak, Hezkuntza Proiektuan jasota dagoenez, hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzea onartu zuen. Irakasle guztiak, haien ikasleekin batera, erabat konprometituta daude programatutako ekintzetan.

Hirugarren zikloko ikasleriak gaiari buruzko inkesta bat bete zuen, eta horren bidez datu adierazgarriak eskuratu genituen:

- Gehiengoak hezkidetzari buruz zerbait entzun du eta badaki ekintza zehatzak egiten direla (martxoaren 8a, azaroaren 16a eta 25a...), eta ikasturtearen zehar beste ekintza batzuk ere egiten dira. Genero Berdintasunari buruzko gaiak lantzen direla aitortzen dute eta eskolan berezia eta ikusteko erraza den leku bat badagoela adierazten du %89ak.

- Gehiengoak baieztatzen du ez dela gai hauekin aspertzen eta uste du beharrezkoak direla, Berdintasuna ez dela lortu pentsatzen duelako %85,5ak.

- Uste dute, eskolan, orokorrean, ez dela hizkuntza sexista erabiltzen eta haiek, %82,6ek (neskek zein mutilek) ez dutela erabiltzen. Beharbada ez dira konturatzen horren erabileraz eta horregatik gai hau azpimarratzen jarraituko dugu.

Familiak, posta elektronikoaren bidez, inkesta bat jaso dute eta horren bitartez egindako ekarpenek (166 familiak erantzun dute) adierazten digute:

- Gehiengoak, %75ak, Hezkidetzari buruz zerbait entzun du, eta %80ak badaki

Genero Berdintasunari buruzko ekintzak egiten ditugula.

- Bakarrik %48ak badaki eskolan hezkidetzak gaiaz erlazionatutako lanak erakusteko leku konkretu bat badagoela eta lekua ezagutzen dutenen artean (81 familia), 64 familia, bakarrik, gelditu dira erakutsitako lanak irakurtzen.
- Familien %55ak adierazten du haien seme-alabek eskolan landutako gaiak buruz hitz egiten dutela.
- Familien %68a konturatu da etxera bidaltzen ditugun oharretan hizkuntza ez sexista, emakumeak ikustekoak egiten dituenak, erabiltzen dugula.
- Familien %93ak pentsatzen du eskolan, curriculum barruan, Berdintasuna eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako prebentzioari buruzko gaiak, landu behar ditugula. %88ak uste du mota honetako gaiak landu behar ditugula: jostailu sexistak, etxeko lanen banaketa, generoren arabera soldataren aldea.
- Familien %75ak uste du haien etxeetan ez dutela desberdintasuna egiten seme-alaben artean eta berdinean hezi egiten dituztela, eta %83ak esaten digu etxean gai hauei buruz hitz egiten dutela.
- Familien ia %100ak ziurtatzen du gustatuko litzaiokeela ekintzei buruzko informazioa jasotzea gai horretaz etxean lantzeko, eta 60 familiek erantzun digute gustura hartuko lukete lan talde batean parte hartzea irakasleekin eta ikasleekin batera, genero berdintasunari buruzko ekintza desberdinak programatzeko.

2.1. Finkatuta dauden jarduerak

Honetako hau izan da egindako bidea eta lortutako esperientzia:

NAHIKO PROGRAMA

- * 2006-07 ikasturtetik 2010-11 urtera arte Tutoretza saioan Nahiko programa landu egin genuen. 3. zikloan hasi ginen eta gero 2. zikloan garatu genuen ere bai.
- * 2013-14 ikasturtean, berriz, hartu dugu programa hau.

ELKARBIZITZA PLANA

- * Elkarbizitza Planarekin hasi ginenean, Nahiko programarako antolatutako ekintzekin batera eskolako elkarbizitzaren alderdi desberdinak lantzerantz bideratzen gaituzte ekintzak sartuko ditugu (genero ikuspuntua ahaztu gabe). Jarduera horiek dokumentu batean bildu genituen dokumentua eskatu ziguten eta.
- * Eskolako Elkarbizitzaren Behatokian, osatu zen hasieratik, Hezkidetza Planaren arduraduna sartuta egon zen, zaintzeko ikastetxearen Hezkuntza-estamentu guztiak beraien esparruetan hezkidetza har dezaten.

"GENERO BETAURREKO MOREAK" KANPAINA

- * "Genero betaurreko moreak" kanpainarekin badaramatzagu bi urte. Helburuak hauek izan dira: Genero Desberdintasuna ahaztu eta Berdintasunean bizitzen ikasi.

Kanpaina honek, maila guztiek parte hartzen duten hainbat jarduera burutzera eramán gaitu. Parte hartzeko ekintzetan, maila eta adina hartu dira kontuan:

- "Harro sentitzen naiz neska izateagatik", nesken agintearen hartzea lantzeko.
- "Iragarki matxistaren bila", ikusteko emakumearen papera
- "Liburuaren eguna" eta "musikaren eguna", genero ikuspuntutik.
- "Tolerantzia eguna" (azaroaren 16a) genero ikuspuntutik.
- "Euskararen eguna" eta Euskal Astea, Kontuan hartzen beti eta lehentasuna ematen emakumeen ekarpenei Gure Herriko historian.

- Tutoretza-orduetan, genero berdintasuna aipatzen duten filmak ikustatu.
- Tratu txarrek eta genero desberdintasunak salatzen dituzten abestiak.
- Lehen Hezkuntzako 3. zikloa 2 jarduera egiten ditu: Idazleekin topaketak, eta "Solosal-di dialogikak". Badaramatzagu 2 urte emakumezko idazleak aukeratzen emakumeen lan literarioa ikusgai egiteko eta gure eskolako neskei boterea lortzen irakasteko..

AZAROAREN 25a: EMAKUMEENGANAKO BORTIZKERIAREN KONTRAKO EGUNA
MARTXOAREN 8an : EMAKUMEEN EGUNA

* Urtero azaroaren 25ean (Emakumeenganako Bortizkeriaren Kontrako Eguna) eta martxoaren 8an (Emakumeen Eguna) maila eta adin guztietara moldatutako ospakizunak egin.

- Pasabideetan tankera honetako muralak ipini: biktimen oroipenean (beraien izena jartzen, haien bizitza agerrarazten, itxaropenerako eta bortizkeria ez erabiltzeko arrazoiak bilatzen ...)

- Geletan eranskailuak egin egun horietan eramateko.

- Gela guztietan begizten banaketa.

- Udaleko puntu lila gela guztietan jarri eta hori baino lehen aurreko eta geroko lana egin.

- Gonbidatu gaituztenean, 6. mailako irakasle-ikasleak Udaletxeko eskaileretan egin diren kontzentrazioetara joan gara.

2012-13 ikasturtean 6. mailako taldeak Udaletxera joan ziren, eta hor eskaera batzuk egin zituzten eta neskek zein mutilek idatzitako testu bat irakurri zuten. Testuan abusu eta bortizkeria sexista salatzen zituzten egoerak azaldu zituzten. Idazkian haiek protagonista zireneko aldaketa baten apustua egiten zuten.

TESTU LIBURUAK ETA IPUINEN MATERIALA HAUR HEZKUNTZAN

* Lengua liburuaren irakurketen berrikuste kritikoa emakumeen agerpen era aztertzeke, batez ere, protagonistak diren ala ez ikusteko.

* Inguruaren Ezaguera liburuaren argazkien berrikuste kritikoa ikusteko nortzuen (gizonezkoen ala emakumezkoen) agertzen diren gehiago eta zein

lanbidetan edo egoeretan azaltzen diren.

* Haur Hezkuntzan, tradiziozko ipuinen berrikuste kritikoa eta begiratu emakumeek jokatzen duten papera.

* Matematiketan, gaiak hornitzen dituzten argazkien berrikusketa eta azterketa. Izan ere, euskaraz egiten direnez ez da hizkuntza sexista ikusten.

BARRUKO ETA KANPOKO AGIRIAK

* Agiri edo dokumentu guztietan hizkuntza ez sexista erabiltzea lortu dugu, bai barruko dokumentuetan bai familiei eta kanpoko instituzioei zuzenduta daudenetan.

* Gure eguneroko hezkuntza praktikan erabiltzen dugun hizkuntzaren ikerketa egin dugu. Horretan azterketa sakonagoa egin behar dugu.

* Eskolako web orria berritzen ari gara konnotazio sexistak deuseztatzeko.

PATIOAK ETA GUZTIEN JOLAS GUNEAK

* Genero ikuspuntutik, patioen erabilera eta bertan nesken eta mutilen agerpena desberdinen azterketa bat egin da. Emaitzak kontuan hartuta, barruko dokumentu batean bildu dugun estruktura desberdin bat egitera eraman gaitu: kirolena, baloiaren erabilerarena, guneena, nesken agerpenarena patio erdian, eta gune hoberenen erabilerarena.

OOG

* Ikasturte honetan, OOG barruan hezkidetzaren arduraduna izendatu da horrela era koordinatuan lan egiten hazteko eta familiengan hobeto heldu ahal izateko.

2.2. Sendotasunak

Egindako eta finkatutako lanetik sortzen den esperientziaz gain, ikastetxeak hasitako lanaren jarraipena bermatzen duten sendotasun batzuk ditu:

- Klaustroko kide gehienek, hiru urtez garatuko den "Berdintasunaren Plana" aurrera eramateko zabaltzen zen deialdira aurkeztea erabaki dute.

- Hezkuntza Sailaren onarpena eta horrek suposatzen dituen laguntzak (prestakuntza, lantzeko denbora)
- Berdintasunerako Planaren bi arduraduna ikastetxean (Irakasle bat eta Eskolako Kontseiluaren ama bat)
- Irakasleen artean, motibazio sendoa dago, arlo ezberdinetatik, berdintasuna tratatzeko eta genero bortizkeriari aurrea hartzeko.
- Gero eta kontzientzia gehiago dago "genero ikuspuntua" eskolako curriculumean zehar lerro moduan sartzearen premiaz.
- Ikasleriak, aktiboki, parte hartzen du gai hauek tratatzeko proposatutako ekintzetan, eta pentsatzen dute Berdintasuna lantzen jarraitu behar dugula, gaur egun oraindik, ez dugulako lortu.
- Familiek, gure lana ontzat ematen dute, egiten dugunaren informazioa jaso nahi dute, eta prest daude eskolarekin programazioan eta ekintzen garapenean parte hartzeko.

2.3. Hobetzeko esparruak

Ohartu gara, gure lana eraginkorragoa izateko eta helburuen lorpena bermatzeko, arlo batzuk indartu behar ditugula eta horren ondorioz honako hau proposatzen dugu:

- OOG aren Hezkidetza planaren arduradunaren parte-hartzea. Orain arte ez gara berarekin harremanetan egon; hori dela eta, Plan hau ezagutarazi behar diogu, berak dituen ideiak eta esperientziak emateko.
- Familien parte-hartzea: familiekin lan egitea oinarrizkoa da bermatzeko ikasleek jasotzen dituzten mezuak koherenteak direla etxean bizi edo sentitzen dutenarekin.
Inkestaren bidez ohartu gara familiek informazioa gehiago nahi dutela eta aktiboki parte hartu nahi dutela.
- Garatuko ditugun ekintza desberdinetarako fitxategia egin, bertan prestatutako materialak erregistratzeko eta gordetzeko.

3. Hezkidetzaren Planaren Helburuak

Batzuk dira Plan honetan biltzen diren helburu orokorrak, eta logikoki, beste helburu espezifikoagoetan zatitu beharko ditugu hiru ikasturtetan zehar landu ahal izateko.

Prozesu hau eman behar da ikasleengan zein irakasleengan, horrexengatik, profesional onak izateko prestakuntza egin beharko dugu, lan horri arrakastaz heltzeko. Gizarte egituran, aldaketa bat nahi dugu, dena den, badakigu gure pentsamoldean eta egunerokotasuneko praktiketan aldaketa bat gertatu beharko duela lehenengoz.

Proiektu osoko helburu orokorrak hauek dira:

1. Gure ikasleengan pentsamendua aldatzeko prozedurak bultzatzea.
 - 1.1. Genero Desberdintasuna ahaztea eta Berdintasunean bizitzen ikastea.
 - 1.2. Berdintasuna ikastea.
 - 1.3. Neskak eta emakumeak agerikoak izaten lortzea.
 - 1.4. Beraien adina eta garapen maila kontuan hartuta, neskak eta emakumeak agintea hartzeko bidea erakustea.
 - 1.5. Genero Indarkeria, gizarte honetatik zeharo ekidin behar dugun gaitza dela ohartaraztea.
2. Hezkidetzaz arduratzen den eskola eredua bultzatzeko, ikastetxea estruktura egokiaz eta pertsonaz hornitzea.
 - 2.1. Irakasleria hezkidetzaren ikuspuntutik prestatzea, irakaskuntza horren planteamendutik egiten dela bermatzeko eta topatu ahal izateko erabiltzen dugun ohizko materialetan zein mezu subliminalak islatzen ditugun gure ikasleriarengan.
 - 2.2. Gure eskola hezkidetzaillea izan dadin, gure xedea izango da familiak informatzea, hezte eta haiekin bateratuta lan egitea.
3. Genero indarkeria sorburu duten mota guztietako bortizkerien prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako mekanismoak abiaraztea.



4. Helburuak lortzeko, proposatutako edukiak eta jarduerak.

1. Helburua: Gure ikasleengan pentsamendu - aldaketa prozesuak bultzatzea.

1.1. Ikasitako genero desberdintasuna ahaztea

Helburu espezifikoa: irudiak, testuak, iragarkiak ... lantzea, generoen artean dagoen desberdintasuna ikusteko eta ohizko rolak eta orain arte genero bakoitzari ematen zaizkionak aztertzeko.

| Edukiak | Ekintzak | Eragileak | Metodologia | Denboralizazioa | Lorpenen adierazleak |
|---|--|---------------------------------------|--|--|---|
| Testu liburuak: irudiak eta idatzitako testuak | Genero ikuspuntutik agertzen diren irudiak aztertu. Desberdintasuna adierazten badute zergatiari ekingo diogu. Testua irakurtzean gauza bera egingo dugu. | - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza | Pertsona bakoitzak, irudietan ikusten duena edo irudiek iradokitzen diotena adierazi ideia-andana baten bidez. | Unitate didaktiko bakoitzeko curriculum materiarekin hasi aurretik. 2013-14 2014-15 2015-16 ikasturteetan | Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan egin da, behintzat, materia bakoitzeko unitate didaktiko erdian. |
| Rolak | Begiratu emakumeei eta gizonei eman zaizkien rol tradizionalak. Aztertu arrazoiak eta ondorioak. Ikertu gaur egungo egoera (emakume askorentzat, lanaldi bikoitza) | - Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa | Rol horien ahozko zerrenda egin: inguruan ikusten dutenaz eta haien beraien esperientziak. | Lanak, sektoreak eta ekonomia gaia ematean. 2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan | Hiru ikasturteetan egin da eta landutako zerrenda gorde egin da. |



| | | | | | |
|----------------------------------|--|--|--|---|--|
| <p>Iragarkia</p> | <p>Genero desberdintasuna era nabarian agertzen den telebistako iragarki bat landu. . Adierazi zergatia eta ondorioak atera. Pasabideetan ipintzeko iragarki-taula egin.</p> | <p>- Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren zikloak</p> | <p>-Begiratu zer iragartzen den. - Zein pertsona agertzen diren. -Zein paper daukan bakoitzak.</p> | <p>- Tutoretza edo Lengua saio bat edo gehiago. 2014-15 ikasturtean</p> | <p>Lau mailatan egin da eta pasabidean jarritako iragarki-taulan gorde egin da.</p> |
| <p>Ipuinak</p> | <p>Genero desberdintasuna era nabarian ikusten den ipuin ezagun bat landu. Zergatia adierazi eta ondorioak atera.</p> | <p>- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa</p> | <p>- Begiratu zein pertsonai agertzen diren, zein den bakoitzaren papera, zein den testuaren mezua eta aztertu pertsonaien rolak</p> | <p>- Saio bat edo batzuk. 2014-15 2015-16 ikasturteak</p> | <p>Gelan erabiltzeko, ipuina edo testua aldaratzen da. Idatzirik uzten da zein testu mota den.</p> |
| Empty row for additional content | | | | | |

1. Helburua: Gure ikasleengan pentsamendu - aldaketa prozesuak bultzatzea.

1.2. Helburua: Genero berdintasuna ikastea

Helburu espezifikoak: irudiak, testuak, iragarkiak ... lantzea, berdintasuna kontuan hartzen dela ziurtatzeko.

| Edukiak | Ekintzak | Eragileak | Metodologia | Denboralizazioa | Lorpenen adierazleak |
|---|---|---|---|--|---|
| Testu liburuak: irudiak eta idatzitako testuak | Genero ikuspuntutik agertzen diren irudiak aztertu. Berdintasun adierazten badute, zergatiari ekingo diogu. Testua irakurtzean gauza bera egin. | - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza | Pertsona bakoitzak, irudietan ikusten duena edo irudiek iradokitzen diotena adierazi ideia- andana baten bidez. | Unitate didaktiko bakoitzeko curriculum materiarekin hasi aurretik. 2013-14 2014-15 2015-16 ikasturteetan | Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztietan egin da, behintzat, materia bakoitzeko unitate didaktiko erdian. |
| Iragarkia | Generoen arteko berdintasuna era nabarian agertzen den telebistako iragarki bat landu. . Adierazi zergatia eta ondorioak atera. Pasabideetan ipintzeko iragarki-taula egin. | - Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren zikloak | - Begiratu zer iragartzen den. - Zein pertsona agertzen diren. - Zein papera duen bakoitzak. | - Tutoretza edo Lengua saio bat edo gehiago. 2014-15 ikasturtean | Lau mailatan egin da eta pasabidean jarritako iragarki-taulan gorde egin da. |
| | | | | | |

| | | | | | |
|----------------|---|---|--|--|---|
| Ipuinak | Generoen arteko berdintasuna era nabarian ikusten den ipuin ezagun bat landu. Zergatia adierazi eta ondorioak atera. | - Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloa | - Begiratu zein pertsonai agertzen diren, zein den bakoitzaren papera, zein den testuaren mezua eta aztertu pertsonaien rolak. | - Saio bat edo batzuk. 2014-15 2015-16 ikasturteak | Gelan erabiltzeko, ipuina edo testua onartzen da. Idatzirik uzten da zein testu mota den. |
|----------------|---|---|--|--|---|

1. Helburua: Gure ikasleengan pentsamendu - aldaketa prozesuak bultzatzea.

1.3. Helburua: Neskak eta emakumeak ikusgai egitea.

Helburu espezifikoak: Ikastetxeak egiten dituen dokumentu guztietan hizkuntza inkluziboa erabiltzea. Emakume anonimo batzuen lana ikertzea eta argitaratzea

| Edukiak | Ekintzak | Eragileak | Metodologia | Denboralizazioa | Lorpenen adierazleak |
|--|---|------------------|--|---|--|
| <u>Ahozko eta idatzizko Hizkuntza</u> | Bi generoak erabili idaztean eta hitz egitean. Bi genero barnean daukaten hitz multzokari erabili. | - Irakasleria | - Bi generoei buruz ari garenean, maskulinoa, bakarrik, ez erabili. - Izen multzokari erabili banakako izen | 2013-14 2014-15 2015-16 ikasturteetan | Hizkuntza ez diskriminatzailea barneratu dutela nabaritzen da. |

| | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|
| | Hizkuntzaren arlo hau ere, ikasleriarekin lan egin, haiek normaltasunez barnera dezaten. | | maskulinoak erabili beharrean. -Animatu ikasleek izen horiek erabiltzen hitz egiten dutenean. | | |
| <u>Ikastetxeko barruko eta kanpoko dokumentuak eta jakinarazpenak</u> | Nahiz eta egiten den, jarraitu erne egoten bai dokumentuetan bai barruko zein kanpoko oharretan erabiltzen den hizkerarekin, bi generoak kontuan hartzeko. | - irakasle guztiak, bakoitza bere esparruan edo / eta bere arduran.. | - Dokumentu, ohar, idazki ... eta abarrean, hizkuntza inklusiboa erabiltzen. | 2013-14 2014-15 20 15-16 ikasturteetan | Egindako materialetan hizkuntza inklusiboaren erabilera ikusten da. |
| <u>Emakumeak historia, literatura, medikuntzan zientzian ...</u> | Nahiz eta azpimarratzeko ekarpenak egin, ezezagunak diren emakumeak bilatu. Begiratu zergatia Panelak egin, pasabideetan ipintzeko . | - Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak. | - Ezagunak ez diren baina eremuren batean (literaturan, zientzian ...) ekarpenaren bat lortu duten emakumeak Interneten bilatu. | 2013-14 2014-15 20 15-16 ikasturteetan Ikasgai desberdinetan. | Orain arte ezezagunak izan diren emakumei buruzko panelak egin dira. |
| | | | | | |

1. Helburua: Gure ikasleengan pentsamendu - aldaketa prozesuak bultzatzea.

1.4. Helburua: Adina eta garapenaren maila errespetatuz, neskei eta emakumeei boterea hartzen erakustea.

Helburu espezifikoak: Gure eguneroko praktika gelan aztertzea, neska-ikasleek hartzen duten papera ikusteko eta beharrezkoa bada rola aldatzeko.

| Edukiak | Ekintzak | Eragileak | Metodologia | Denboralizazioa | Lorpenen adierazleak |
|------------------------------|---|---|--|---|--|
| Klasean parte-hartzea | <p>Gelan nesken parte-hartzea bultzatu. (Frogatuta dago mutilek gelan denbora gehiago hitz egiten dutela eta hitz egiteko txanda gehiago eskatzen dutela)</p> <p>Galdetu, animatu, segurtasuna eman ... neskek gehiago parte-har dezaten.</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Lotsatienak diren edo gutxiago parte-hartzen duten neskei hitza ematen. - Neskei galdera gehiago egiten. - Lehenengoz , hitza ematen neskei. | <p>2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Neskek, gero eta gehiago hartzen dute parte geletan. - Neska-ordezkarri gehiago daude, lehen baino. |
| Ardurak | <p>Genero ikuspuntutik gelako ardura desberdinak banatu. Ez du balio neskek batze edo txukuntze lana egitea (matxista rola), normalean mutilek nahi dituzten ardurak eman</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza | <ul style="list-style-type: none"> - Orain arte, normalean mutilek hartzen zituzten ardurak neskek bereganatzen animatu eta alderantziz. | <p>2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan</p> | <ul style="list-style-type: none"> - Ardura berriak ez daude genero ikuspuntutik mugaturik. |

| | | | | | |
|----------------------------|---|--|---|--|---|
| | behar dizkiegu neskei (ordezkaría izatea, beste gala batera joatea mandatu batekin ...) | | | | |
| Jolasa | Batez ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan begiratu zein jolas mota egiten duten, ea ikasle guztiak txoko guztietatik pasatzen diren, nola bizi duen ikasleriak, zein jostailu mota nagusitzen diren gelan , nortzuek erabiltzen dituzten ,... eta ebazpenak atera, beharrezkoa bada aldaketak sartzeko. | - Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan | - Jolas ez sexistak bultzatu. - Alde sexistak ez dituzten jostailu berriak eta erakargarriak erosi. | 2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan | - Geletan, ez sexistak diren jolasak daude. |
| Rolak desmitifikatu | Lehenengo helburuan ikusitako emakumeen tradiziozko rolak, garrantzitsua da, belaunaldiz belaunaldi bidali duten mezua desegitea: Emakumea= Zaintzailea eta ona | - Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa | - Ideia – andana egin ikusteko zein ideia mota duten, zein esperientzia daukaten eta haien sentimenduei buruz hitz egiteko. | 2014-15 2015-16 ikasturteetan | -Gaia landu egin da eta ebazpenak idatzita utzi dira. |

| | | | | | |
|---|---|--------------------------------------|--|--|---|
| | Ezkontza=Segurtasuna emakumearentzat. Gizona= Lan arriskutsuak ... | | | | |
| Generoren betaurreko moreak(Berdin gune) | “Generoren betaurreko moreak” proiekturako gune bat prestatu dugu eta gure helburua berdintasunerako leku moduan mantentzea da. Gune horretan, ekintza desberdinetan egiten den lana, ipiniko da. | - Haur Hezkuntza -Lehen Hezkuntza | - Jarduera bakoitzak behar izaten duena. | 2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan | - Jardueren zerrenda bat egingo dugu eta 5 berri, gutxienez, egongo dira. |

1. Helburua: Gure ikasleengan pentsamendu - aldaketa prozesuak bultzatzea.

1.5. Helburua: Genero bortizkeria erabat deuseztatu behar dugun gaitza bat dela kontzientziatzea.

| Edukiak | Ekintzak | Eragileak | Metodologia | Denboralizazioa | Lorpenen adierazleak |
|--------------------------------------|---|---|--|---|---|
| <u>Tolerantzia 0</u> | Fitxak, muralak jolas didaktiko eta abarren bidez (azaroaren 16an espezifikoki) tolerantzia landu; arraza, ideiak, erlijioa, sexua desberdinu gabe. Halaber, tolerantzia 0 landu bortizkeriaren kontra eta konkretuago emakumeenganakoa egiten denarekin emakumea izateagatik. | <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza | - Gaia talde handian landu eta gero 3-4 kideen taldeak antolatu pasabideetan ipintzeko muralak egin. | 2014-15 eta 2015-16 ikasturteetako azaroetan. | - Pasabideetan mural desberdinak ipini dira eta haien argazkiak atera ditugu. |
| <u>Berdintasuna ezberdintasunean</u> | Eskolan badauzkagun fitxen eta materialen bidez, gehi Nahiko programak eskaintzen dizkigunak,aztertu, desberdinak garelako baina aldi berean berdina ere | - Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak. | - Programak berak adierazten duena. | 2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan | - Programaren fitxak eginda daude . |



| | | | | | |
|---|--|-------------------------------|---|---|---------------------------------|
| | bagarela (berdinak ezberdintasunean) eta bizitzarako ebazpen praktikoak atera. | | | | |
| <u>Afektibitate eta sexualitate tailerrak</u> | <p>Eskolako medikuaren sexualitateari buruzko hitzaldia 6. mailakoentzako. Afektibitatea maila baxuetatik landu berdintasunaren ikuspuntutik eta emakumeei sentikortasunarekin (batzuetan milikeriarekin) eta ahultasunarekin (sexu ahula) lotzen zaizkien estereotipoak eta gizonezkoei indarrarekin eta sendotasunarekin lotzen zaizkienak, apurtu.</p> <p>Afektibitatea landu, sentimenduak adieraztea ez izateko bakarrik "nesken gauza".</p> <p>Lehen Hezkuntzako 3. Zikloan, ekin sexualitate gaiari neskei prestakuntza erreala emateko, gero</p> | - Lehen Hezkuntzako 3. zikloa | - Eskolako medikuak proposatzen duena. - Fitxen bidez, irakurgaien bidez, ... ebazpenak atera. | 2013-14, 2014-15 20 15-16 ikasturteetan | - Ebazpenak idatzita utzi dira. |

| | | | | | |
|---|--|-------------------------------|---|--|--|
| | bikoteekin gai izateko harremanak berdintasunetik edukitzen. "Erromantiko irudiekin" apurtzen dituzten ekintzak antolatu, askotan ez dutelako laguntzen berdintasunean hezten edo bizitzen. | | | | |
| <u>Puntua/begizta morea</u> | Puntua, begizta morea, genero betaurrekoak eta berdintasunaren gaia gure irakaskuntzaren egunerokotasunean aurrean ditugula gogorarazten gaituzten ikur guztiek begi-bistako lekuetan eduki. | -Irakasleria | - Antzinako berritu. | 2013-14, 2014-15 2015-16 ikasturteetan | - Berdintasunaren adierazle argiak ageri dira ikasturtean zehar. |
| <u>Ahozko bortizkeriarekin eta neskentzako eta emakumeen -tzako arriskutsuak diren topikoekin edo irudiekin apurtu.</u> | "Ez nau maite" eta "ez dut maite" kanpaina landu nerabetasunean ikusten ari den bortizkeria eta ahozko kontrolari buruz hausnartzeko. | - Lehen Hezkuntzako 3. zikloa | -Nerabeen portaera berriak erakusten dituzten egunkarien testuak irakurri. - Haien esperientzietatik, lan egin. - Pasabideetan ipintzeko, muralak egin. | - 2013-14 ikasturtean - 2015-16 ikasturtean | - Gaiari buruzko muralak jarri dira. |

2. Helburua: Hezkidetzaz arduratzen den eskola eredia bultzatzeko, ikastetxea estruktura egokiaz eta pertsonaz hornitzea.

2.1. Irakasleria hezkidetzaren ikuspuntutik prestatzea, irakaskuntza horren planteamendutik egiten dela bermatzeko eta topatu ahal izateko erabiltzen dugun ohizko materialetan zein mezu subliminalak islatzen ditugun gure ikasleriarengan.

| Estrategiak | Jarduerak | Kronograma | Lorpenen adierazleak |
|--|---|--------------------|---|
| Berritzegunek emandako iradokizunen bidez prestakuntza lortzea, irakasleriak zein zuzendaritza taldekoek arlo hauetan gaitasun nahikorik duten bermatzeko. | Genero gaietan adituak diren pertsonen bideoak ikusi. Talde txikian edo handian lan egin eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko. | 2014-15 2015-16 | Irakasle guztiek prestakuntza egin dute hiru aldiz behintzat. Idazki batean bildu dira akordioak, gero gelara eramateko. |
| Prestakuntza lortzea bermatzeko irakasleriak erabiltzen duen materiala hezkidetzaren irizpideekin bat dagoela eta baita genero indarkeriaren prebentzioarekin (erabiltzen dugun materiala, partekatutako minimoetara iristen saiatuz). | Prestakuntza saioetan aztertu geletan lantzen ditugun testuak, ipuinak, bideoak, ... genero ikuspuntutik zein irudia islatzen duten ikasleriarengan ikusteko. | 2014-15 2015-16 | Irakasle guztiek prestakuntza honetan parte hartu dute hiru aldiz behintzat. Idazkietan bildu dira akordioak, gero geletara eramateko. Beharrezkoa izan denean, materiala kendu da. Hartutako akordioak kontuan izanda, materiala erosi dugu. |

2. Helburua: Hezkidetzaz arduratzen den eskola eredia bultzatzeko, ikastetxea estruktura egokiaz eta pertsonaz hornitzea.

2.2. Gure eskola hezkidetzaila izan dadin, gure xedea izango da familiak informatzea, hezte eta haiekin bateratuta lan egitea.

| Estrategiak | Jarduerak | Kronograma | Lorpenen adierazleak |
|--|---|--------------------|---|
| Berritzegunek emandako iradokizunen bidez prestakuntza lortzea, familiek, arlo hauetan, gaitasun nahikorik duten bermatzeko. | Genero gaietan adituak diren pertsonen bideoak ikusi. Talde txikian edo handian lan egin eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko. | 2014-15 2015-16 | Programatutako jardueretan parte hartze gero eta handiagoa dago. |
| Irakasleekin, ikasleekin eta familiekin, lan talde bat osatu, hezkidetzaz lantzen duen jardueraren bat diseinatzeko. | Bilerak egin ikasleriak ikastutero lan egingo dituen bi jarduera konkretuak programatzeko. | 2014-15 2015-16 | Jardueren erdia, behintzat, programatu dira. Jarduera horien emaitzak bildu dira. |

3. Helburua: Genero indarkeria sorburu duten mota guztietako bortizkerien prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako mekanismoak abiaraztea.

| Estrategiak | Jarduerak | kronograma | Lorpenen adierazleak |
|---|--|----------------------------|--|
| <p>Genero indarkeriaren prebentzio -sozialerako programak eta proiektuak bultzatzea (1.5 helburua)</p> | <p>Lehenengo urteetatik berdin arteko gehiegizko erabilera portaeren kontrako (Tolerantzia 0) materialak garatzea eta /edo lantzea.</p> | <p>2014-15 2015-16</p> | <p>Erabili ditugun materialen kopurua.</p> |
| <p>Genero bortizkeriaren ikuspuntutik berrien arteko tratu txarrak (Bullying eta ciberbullying) saihesteko programak , proiektuak eta jarduerak bultzatzea.</p> | <p>Berdinen arteko praktika egokien portaerak lantzen dituzten materialak landu. Tratu txarra gertatzen denean jokaera protokoloa.</p> | <p>2014-15 2015-16</p> | <p>Landu ditugun materialen kopurua. Jokaera protokoloa badaukagu.</p> |
| <p>Genero ikuspuntutik heziketa afektibo - sexual eta aniztasun - sexualari buruzko programak bultzatzea.</p> | <p>Hirugarren zikloan zonako baliabideekin (hezitzaile sozial eta eskola - medikua) lan egin.</p> | <p>2014-15 2015-16</p> | <p>Informazio eta hezigarri hitzaldiak egin dira.</p> |



| | | | |
|---|---|--------------------|--|
| Ziurtatu Elkarbizitza Behatokia adi badagoela eta beharrezko denean parte hartzera prest dagoela. | Behatokiak plan osoa eta egiten ari den lana ezagutzen ditu, eta ideiak eta iradokizunak ematen ditu. | 2014-15 2015-16 | Egongo balira, bere bilerak eta bere ekarpenak jasota daude. |
|---|---|--------------------|--|

5. Denbormalizazioa

Gure ikastetxea, egutegia kontuan hartuta (azaroaren 16a eta 25a, martxoaren 8a eta apirilaren 23a), urtero jarduera tinkoak egiten ari da. Horretaz aparte, ikasturtero beste jarduera batzuk egiten ditugu hiru hiruhilekoetan banatuta. Gure ideia, aldi berean helburu guztiak lantzea da, eta horren erritmoaren arabera edukiak eta jarduerak programatzea.

"Nahiko" programaren barruan, unitate desberdin bat aukeratu da mailaka 3. mailatik 6. Mailara, eta astero lan egingo dugu tutoretza saioan.

Sexualitate tailerra eskolako medikuak ematen du 6. mailan eta gero tutoretzetatik jarraipen bat egiten zaio.

Honekin batera doazen koadroetan, denbormalizazioa agertzen da. Dena den beharrak agertzen diren neurrian, aldaketak egin ahal dira.

Ikasturte bakoitzeko Memorian ekintza bakoitzaren denbormalizazioa jasoko dugu eta hurrengoa betetzeko beharrezkoak diren aldaketak prestatuko ditugu.

6. Ebaluazioa eta hobekuntzarako proposamenak

Ikasturte bakoitzaren amaieran, guk egindako datuen bilketarako fitxetan, landutako edukiak, eta horien garapenerako egindako ekintzak, denbormalizazioa eta garapen maila batuko ditugu.

Halaber, arrakasta maila neurtzeko ebaluazio bat egingo dugu, bertan, parte-hartzea eta amaierako emaitzak aztertuko ditugu. Hori burutzeko, aurreikusitako lorpenen adierazleak kontuan hartuko ditugu

Emaitzak ez badira onak edo kontuan hartu ez ditugun beste aldagai mota agertzen badira, hobekuntzarako proposamenak ezarriko ditugu, lana eraginkorragoa eta sistematikoagoa egiteko helburuarekin. Gure xedea, ikasleek gogo gehiagoz eta arrakasta gehiagoz "Berdintasuna" eta "Bortizkeriaren kontrako gaia" lantzea da.